

Bizipenekin sortzen duguna, horixe da magia

Oreretako AsteBatzuk ekimenean hartu dut parte. Ekimenean izena eman nuenean euskaraz ahalik eta gehien aritzeko helburua jarri nion neure buruari bai eta hizkuntzarekiko eta inguruarekiko sentsibilitatea areagotzea.

Lehenengo egunean txapa jarri, herri-
ra jaitsi eta ohikoa ez den denda batean sartu nintzen. Dendariari, *Kaixo* esan eta berak berdin erantzun zidan. Ordu-
ra arte, agurretik at emakume hura ez dut entzun inoiz euskaraz hitz egiten. Beste bezeroekin gazteleraz entzun arren zergatik ez naiz euskaraz aritu?

Oraingoan euskaraz hitz egitea erabaki nuen. Erosketa egiteko garaian zalantza bat eduki nuen eta irribarretsu euskaraz egin nion galdera; berak poliki eta euskaraz erantzun zidan. Poz-pozik eskerrak eman nizkion.

Orduan gizon bat sartu zen; bezero ezaguna zela sumatu nuen eta beraien artean gazteleraz hitz egiten hasi ziren. Zalantza berri bat sortu zitzaidan eta orain ere euskaraz aritu nintzen. Pentsakor geratu ostean poliki euskaraz erantzuten hasi zen. Bukatu zuenean beste bezeroak harrituta hauxe esan zion gazteleraz:

– Ez nekien euskaraz hitz egiten ze-nuenik? Ze polita, ezta?



Nora Barroso

ARGIA-KO BLOGARIA

@axala_n

Estereotipoei bizkarra ematen ez badiegu, erraztasun gehiago dugunok ez bagara aritzen, ez badugu aurrean duguna behar bezala kontuan hartzen, zer espero dezakegu, zer eskatuko diegu besteei?

– Alabak badaki euskaraz, baina nire senarrak ez. Asko kostatzen zait, ez dut ondo hitz egiten.

– Ba oso ondo egiten duzula ematen du. Gizonak pozik begiratzen zion. Orduan nik zera esan nion:

– Oso ondo hitz egiten duzu. Euskalte-girik naturalena harremanekin sortzen dena da. Gehiagotan etorriko naiz hona eta euskaraz hitz egingo dut zurekin, ados? Horrela praktikatuko dugu.

Irribarre handi bat bota zidan, ordain-
du eta neu ere irribarre ahoan joan nintzen. Joan aurretik, beste bezeroak gehiagotan euskaraz hitz egin behar zuela esan zion dendariari, ederki egi-
ten zuela, soinu politak botatzen zituela. Hizkuntzarekin zituzten bizipenei buruz modu baikorrean hitz egiten utzi nituen. Lehen eta bigarren hitza beti egiten dut euskaraz, baina gaztelerara zenbatetan jotzen nuen ez nintzen jabetzen.

Zer gertatu zen? Aurrena, aurreiri-
tziei ateak itxi nizkiela eta espazio txiki batean komunikatzeko eta euskaraz hitz egiteko borondatea zuten bi pertsona elkartu zirela. Estereotipoei bizkarra ematen ez badiegu, erraztasun gehiago dugunok ez bagara aritzen, ez badugu aurrean duguna behar bezala kontuan hartzen, zer espero dezakegu, zer eskatuko diegu besteei? Nola lortuko dugu pertsona horiek euskararen gramatika ikastetik euskaraz aritzeko saltoa ematea? Euskaltegiek ez dute magia egiten; magia, bizipenekin sortzen dugun horixe da. Komunikazio bide herrikoiak zabaltzen jarrai dezagun! ■

Uda euskaraz haur eta gazteentzat!

ekainetik aurrera
Bilbo erdian!

Gazteola*
Haur eta Gazteak

- Tailerrak
- Campus eta udalekuak
- Euskara ikastaroak
- Barnetegiak...

www.gazteola.eus